

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0040	Zorrak konpentsatzeko eskaria
---	---------------	--------------------------------------

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Udal ogasunarekin dauden zorrak, zor horiek interesatutako pertsonaren alde aitortutako eskubideekin konpentsatuz ordaintzeko aukera.

NORK ESKA DEZAKE?

Eskakizun hau betetzen duen interesatutako edozeinek edo bere lege ordezkariak:

- Udal ogasunaren zordun izatea edozein kontzeptu dela eta (zergak, prezio publikoak, etab.) eta, halaber, baita hartzekoduna ere, Udal ogasunak aitortutako kobratzeko eskubidea izateagatik (fakturak, diru-laguntzak, diru-sarreraren itzulketak, etab.)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E007 Eskabide orri orokorra](#)
- Inprimaki normalizatua. (E007)
- Interesatutako pertsonaren edo ordezkariaren NAN edo IFK edo horiek ordezkatzan dituen beste nortasun agiri bat.
- Izapidea egiten edo sinatzen duen pertsona interesatua ez bada, ordezkaturako pertsonaren NAN aurkeztu beharko da.
- Zorren eta interesatuaren aldeko eskubidearen identifikazioa.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Email bidez:

- diruzaintza@amorebieta.eus

Telematikoki:

- [Hasi online tramitazioa](#)

Posta arrunta:

- Posta ziurtatua
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 6 hilabete

Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [Martxoaren 10eko 2/2005 Bizkairako Tributu Foru Araua](#)
- [215/2005 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga -bilketari buruzko araudia onetsi duena](#)
- [Kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzako ordenantza fiskala](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskatzailearen datuak batu, egiaztatu eta eskaneatu.
2. Udal Diru-zaintzara eta Ikuskaritzara bidali.
3. Alkatetzaren ebazpena.
4. Interesatuari jakinarazi.
5. Kontabilitateko konpentsazioa egin dagozkion aplikazio informatikoetan.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ekonomia arloa - Diruzaintza eta zergen bilketa

OHARRAK

Diru-bilketarako kudeaketa fasean, borondatezkoan zein betearazlean, dauden Udalaren aldeko zorrak konpentsatu ahal izango dira.

Eskaria borondatezko epealdiaren barruan aurkezten bada, izapideak irauten duen bitartean epealdi betearazlearen hasiera etengo da, eskaintzen den konpentsazioaren kredituaren mugara heldu arte.

Eskaria epealdi betearazlearen barruan aurkezten bada, ez da diru-bilketa prozedura etengo.

Interesatutako pertsonaren aldeko kreditua zorra baino txikiagoa bada, kreditua gainditzen duen zorraren partearen bilketarako prozedurarekin jarraituko da.

Kreditua zorra baino handiagoa bada, konpentsazioa adostu ondoren, aldea interesatuari ordainduko zaio, eskari inprimakian adierazitako kontuan.

